

# Ataria



## Horrela izan ote ziren nekazaritzaren hastapenak?

Kondaira zaharrak dio "Martin Txiki" izeneko heroiak "Basajaun" erraldioen bitartez lortu zituela lehenengo gari haziak. Haiek bizi ziren haitzulora gerturatu eta apustura zirikatu omen zituen, salto batez nork gurutzatuko basoko izaki hauek gordetzen zituzten gari pilak.





Basajaunak arazorik gabe egin zuten jauzi, baina gure laguntxoaren txanda heldu zenean, "tamalez" gari pilaren erdiraino soilik iritsi zen, bere abarka zabalak gari alez bete zirelarik.

"Martin Txiki" etxera bidean omen zen erraldoiak iruzurraz ohartu zirenerako. Oso haserre kobazulotik irten, eta haietako batek aizkora bat jaurti omenzuen Martin zegoen aldera, baina gaztainondo baten enborrean jo zuen. Erabat zapuztuta, Basajaunen kontsolamendu bakarra gizakiak ale horiek noiz landatu ez zekitela omen zen, haziak haztea zailduz. Hau pentsatzen zuten bitartean, zera abestu omen zuten:



Ja jaaaay Baleekiia artuko likenea:  
Orr irtete arto eitte  
Orr erorte gari eitte  
Ta San Loentzota arbi eitte.

Bere gordelekutik, Martin Txiki bertsoa aditu zuen ordea, eta horrela jakintza baliotsu bat betirako ikasi. Era honetan hasi omen zen nekazaritza Euskal Herrian.

-  Zergatik uste duzu sortzen zirela horrelako kondairak?
-  Kultura ezberdinetan nekazaritzaren hastapenen inguruko zein beste kondaira ezagutzen dituzu?
-  Zein da nekazaritzaren sorreraren beste bertsioa? Ikertu ezazu.
-  Bilatu hiztegian nekazaritza hitzaren esanahia, eta itzuli ezazu 5 hizkuntzetara. Bildu ikasgelan lortu dituzuen hizkuntza guztiak, zenbat dira?

## Baserriaren historia

Gipuzkoan barrena non-nahi topa ditzakegu baserriak, bata bestearengandik aldentuta eta paisaian barreiatuta, ingurua bere beharretara moldatu eta egokitu dutelarik. Euskal Herrian, etxeak bizilekuak baino zerbait gehiago dira, gure kultura eta ohituren oinarria, belaunaldiz belaunaldi pasaz sendiaren izaera adierazten dutelarik.

Baserriak, gaur ezagutzen ditugun eran, ez ziren XVI. menderarte eraikitzen hasi. Aurretik, nekazariak egurrezko txabolatan bizi ziren. Egun, harri, egur eta adreiluzko eraiki eroso eta handiak dira.




Baserri bakoitzak izen propioa du, denboran zehar aldakaitza, eta besteen artean bereizten laguntzen duena.

- ✎ Ba al dakizu zein izen duten "Baserría, natur eskola bizia" proiektuan parte hartzen duten baserriek?
- ✎ Baserri hauen izenetako baten jatorria ikertzerik bai?



## Baserriaren egitura

Bizi garen eremuan bereizgarri den klima euritsu dela eta, Gipuzkoako baserriek arkupe handi bat izan dute betidanik. Etxeko leku hau eskulanak egiteko erabili ohi zen, landan erabilitako lanabesen konponketak edota artoaren aletzea egiteko besteak beste.



Beheko solairuak etxebizitza eta ukuilu funtzioa zeukan. Familiaren logela animalienetik gertu kokatzearen arrazoia, neguko gau hotzetan epel lo egitea ziurtatzen zen, abereek botatzen zuten berotasunean. Sukaldea ere beheko pisuan zegoen, hasiera batean tximiniarik gabekoa, eta hortaz, sabaiko zirrikituetatik suaren keak goiko pisuraino iristen ziren.

Bigarren solairuan, urtean zehar bildutako uzta gordetzen zen. Jasotako garia, sagarrak eta orotariko barazkiak pilatzen ziren, apurka-apurka baserrian bizi zirenen elikadurarako erabiliz.

Gaur egun eraikuntza nagusiak bizileku moduan soilik erabiltzen dira gehienetan, nahiz tailer eta biltegitarako ere txokoak eduki. Abereak alboko eraikinetan egon ohi dira.

- ✎ Nola uste duzu berotzen direla orain baserriak?
- ✎ Nolakoak dira gaur egungo ukuiluak?

## Egitura soziala

Tradizionalki baserrietan familia zabala bizi ohi zen, eta elkarrekin bizi ziren aitona-amonak, gurasoak eta seme-alabak, hiru eta baita lau belaunaldi ere. Bizilagun kopurua baserriaren ekoizpenarekin lotuta zegoen.

Morroi edo neskameen presentzia landako eskulanaren beharrarekin zegoen lotuta, eta behar hau ezin zen gertuko nahiz urruneko senideekin asebetu. Seme edo alaba jaioberrria hil ezkeru beste baten adopzioa ere askotan egiten zen.



Adin eta sexuaren arabera, familiako kide bakoitzak funtzio zehatz bat zuen, denak baserriko bizitzan parte hartuz. Hala ere, landa lana edota uztaren biltzeak familia guztiaren parte hartzea behar izaten zuen, baita bizilagun eta soldatapekoena ere aukera izanez gero. Bizilagunen arteko elkarlana "auzolana" deitzen zen.

- ✎ Zenbat belaunaldi bizi dira zure ikaskideen etxeetan? Zein falta dira? Non daude?
- ✎ Ze onura ikusten dizkiozu hainbat belaunaldi elkarrekin bizitzeari?

# Baserrien eraldaketa

Industrializazio garaia Gipuzkoan papera, tresneria, jantziak edota arma ekoizten ziren lantegiak eraikitzen hasi ziren garai bat izan zen. Uzten ezegonkortasunaren aurrean, pixkanaka oihal eta metalurgia fabrikak nekazaritza eta abeltzaintza lanak ordezkatzeko hasi ziren, eta zortzi orduko lanordua finkatu. Eguneroko baserriko lanak emakumeen eskuetan gelditu ziren, eta nahiz gizonezkoak lantegietatik itzultzean eta asteburuetan esku bat bota, ekoizpena nabari gutxiago zen.



Ondorioak positiboak izan ziren langileentzat, baina ez inguruko landa eremuarentzat. Behinolako baserri jasangarriek, ziklo itxia zutenak, sortutako hondakin guztiak lurra ontzeko erabiliz, eraldaketa bat jasan zuten. Lursailak pinu ustiaketa intentsiboan edo atzerriko arrazen erabileretara bideratu ziren, baita askotan alde batera ahaztuak gelditu ere. Hiri eremuaren presio izugarria izan zen prozesu hau betetzearen pisuko arrazoi bat.

- Ezagutzen al duzu zure familian edo bizilagunen artean landatik lantegira lanera pasa den inor? Galdetuko al zenioke nola aldatu den bere bizitza?*
- Galde iezaiozu pertsonaren bati nola izan den azken urteetan herri eta inguruen eraldaketa. Begira ezazue ingurua elkarrekin eta galdetu gaur autopista edo supermerkatua dagoen lekuan zer zegoen lehen.*
- Nork zaintzen zituen landa eta bideak?*



# Baserriaren etorkizuna

Iraganean baserriarrak nekazaritza eta abeltzaintzan egiten zuten lan. Jasotzen zituzten produktuak, arrautzak, sagarrak edota porruak izan, eurek berak kontsumitzen zituzten, eta soberakinak merkatuan saltzen zituzten ekoitzi ezin zutena erosi ahal izateko. Ondoren industrializazioarekin, baserriak produkzioa espezializatu eta areagotu zuen (esnea, haragia, baratza berotegiekin ...) errentagarritasuna gehituz. Baina espezializazio horrek ere bere goia jo du eta arazoak sortu dira: inbertsio handiegia, bitartekarien beharra, kalitatearen beherakada, kutsadura...

Gaur egun joera hori aldatu egin da eta beste dibertsifikazio motak azaltzen hasi dira, baserriarrak ez du soilik baratza edo abereekin lan egiten, batzuk ingurua ezagutu nahi duten bisitariarentzat landetxe bihurtu dute eraikina eta beste batzuk, ikasleak jasotzen dituzte, bertan gazta edota ogia egiten ikastera etorriak. Euren produktuak merkatuara eramaten dituztenak ere badaude, beste batzuk bezeroari esnea, barazkiak edota haragia zuzenean saltzen dizkiote, baita internet bidez ere, eta badira ekoiztako produktuak botilaratu, potoratu edota paketatzen dituztenak ere. Ekimen berriek baserriaren papera ekonomian, gizartean eta kulturean garrantzitsua izaten jarraitzeko aukera ematen dute, era berean gure paisaiaren zaindaria nagusiak izaten jarraitzen dute.



- Baratza, zelaiak edo abereen zaintza ez diren beste zerbait egiten duen baserririk ezagutzen al duzu? Zer egiten dute?
- Handitzen zarenean baserri batean bizitzea pentsatzen al duzu?

\*\*Txosten honetako informazio asko ondorengo argitalpenean oinarrituta dago:  
Santana, A. (1993): "Baserria". Bertan bilduma, 4. alea. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia.